

Utikan IKTen multinazionalak ikastetxeetatik!

Gure ikastetxeetan elikadura osasungarria izatea funtsezkoa da. Ez guke inolaz ere onartuko multinazional batzuek, beraien interes eta lehentasunen arabera, jantokietako menuak baldintzatzerik. Bistakoa da horrek ezinbestean ikasleen osasunean ondorio kaltegarriak izango lituzkeela.

Ikastetxeetan Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) gero eta gehiago erabiltzen dira eta multinazionalak ikasleengan duten kontrola eta eragina haziz doa. Hori ere ikasleentzat kaltegarria da. Google-n plataforma osoak, lan batzuk erraztu baditzake ere, ez da ikasleen heziketarako ezinbestekoa (alternatiba asko daude), eta okerrenea dena, **onartu ezin ditugun arriskuak eta gabeziak** ditu.

1. Pribatutasuna



Google, Amazon, Facebook, Apple eta Microsoft (GAFAM) bezalako enpresek herritarren hainbat datu biltzen dituzte eta informazio horrekin guztiarekin etekin ekonomikoak lortzen dituzte. Enpresek doako zerbitzuak eskaintzen badizkigute, produktua gu geu garela da. Adibidez, 2019an Google 154 milioi euroko isuna ordaintzera zigortua izan da YouTube bitartez haurren datuak bildu eta berauek partekatzeagatik. Era honetako urraketak guztiz onartezinak dira. **Helduon ardura da adingabeak babestea.** Moztu dezagun datu bilketa tranpatia ikastetxeetan eta gorde ditzagun ikasleen datuak euskal "hodeietan".

2. Zaharkitzapen programatua

Auto berria erosten al duzu 5 urtero? Orain ordenagailuak 5 urte igarotakoan zakarrontzira bota behar al ditugu? Chromebook-ek 5 urte pasatuta ez dute eguneratzerik jasotzen eta horren ondorioz aplikazioek huts egiten dute. Gero eta euskal ikastetxe eta familia gehiago, 5 urteak igarotakoan, merkea zirudien erosketara amarrua zela modu mingotsenean konturatzen dira. Euskal familiek urtero gastu handia egiten dute eta **ezin diegu IKTen multinazionalen hezkuntzako gastua puzten utzi**, are gutxiago gure gailuei etekin handiena ateratzen laguntzen diguten sistema libreak eskura ditugunean.



3. Euskara



Multinazionalak euskara baztertzen dute. Apple-k gailu eta zerbitzu bakar bat ere ez du euskaraz ematen. Microsoft-ek gutxi batzuk bakarrik euskaratzen ditu baina Eusko Jaurlaritzak lan guztia egin eta doan oparitzen diolako soilik. Chromebook-etako zati garrantzitsuak ez daude euskaraz, ezta Google Suite eta beste asko ere. **Euskal hezkuntzan erdaraz dabilzan softwareak erabiltzen jarraitzeak ez du zentzurik**, gure ikasleei begira inkongruentzia nabaria da. Erabil ditzagun funtzio berdinak euskaraz egiten dituzten tresna libreak!

4. Dependentsia

Gaitasun digitala, Europako hezkuntza legeen arabera, ikasleek lortu beharreko oinarriko gaitasuna da. Behin eta berriz **multinazionalen produktuak irakatsiz, ikasleen autonomia mugatzen dugu**, kontsumitzaile fidelak sortzen dihardugu. Medikuntzan sendagai generikoak erabiltzen diren modu berean erabil ditzagun hezkuntzan software libreak, multinazionalakiko dependentsia murrizteko.



Eskuorri hau software librearekin egina da eta Creative Commons BY-SA 4.0 lizentzia librea du. Egilea:



Hezkuntza Libreazale
hezkuntza.librezale.eus

Konponbideen bila...



Arazoa konplexua da eta irtenbide guztiak ez daude agerian. Hezkuntzaren esparruan gaudenok (erakundeak, irakasleak, ikasleak, gurasoak, hornitzaileak...) konponbideak bilatu eta garatu beharko ditugu. Denon ardura da hezkuntzan ICTak kalitatezkoak eta osasungarriak izatea. Ezin dugu hemen ezer gertatuko ez balitz bezala egin. Google-k eta Microsoft-ek eskaintzen digutena merkeagoa, doakoa edo erosoagoa izateak ezin du aitzakia izaten jarraitu. ICTen multinazionalak garatutako teknologiak ez dira neutralak, gero eta hobeto ulertzen ditugun arrisku eta gabezia larriak dituzte. **Beharrezko neurriak zenbat eta beranduago hartu, orduan eta garestiago ordainduko dugu.** Egun bakarrean ez da dena aldatuko, noski, baina erabaki txiki eta eraginkorrak hartzen has gaitezen orain eta hemen.

1. Heziketa funtsezkoa da

Elikaduraren esparruan gertatzen den bezala, ICTen esparruan ere ohitura osasungarriak garatzeak eta mantentzeak lana eskatzen du. Beraz, jarraian aipatuko ditugunak bezalako teknologiak ikastetxe gehiagotara zabaldu ahal izateko, **taxuzko heziketa lana egitea ezinbestekoa da.**

2. Posta elektronikoko seguruak

Ezin dugu ahaztu Gmail, Outlook, Yahoo eta antzeko doako email zerbitzuen helburua, gugandik informazioa biltzea dela. Kontrolik gabeko datuen isuria, maiz, kaltegabea dirudien ikastetxeko Gmail kontu baten erruz hasten da. Baina posta elektronikoa benetan zerbitzu merkea da eta ikastetxeek edo erakunde publikoek **irakasle eta ikasleei multinazionalak ustiatzen ez dituzten postontziak eman** beharko lizkieke.

3. Nabigatzaile independenteak

Ikasleak multinazionalen nabigatzaileekin hezi ordez (Google Chrome, Microsoft Edge...), hobe da Mozilla **Firefox** bezalako nabigatzaile libreak erabiltzen irakastea. Mozilla fundazioaren Firefox nabigatzailea librea da, gailu guztietan dabil, euskaraz dago, bere motorra du (ez dago Chromium-en oinarrituta), punta-puntako berrikuntza guztiak dakartza, Internet osasungarri bat garatzen eta mantentzen laguntzen du eta erabiltzaileen pribatutasuna babesten du. Ahaldundu ditzagun ikasleak Firefox nabigatzailearekin.

4. Guztion mapak

Online dauden entziklopedia komertzialak sustatu ordez, elkarlanari esker mantentzen den Wikipedia irekia eta librea lehenetsi dezagun. Arrazoi berberengatik, Google Street Maps erabili ordez, ikastetxe guztietan **Open Street Map** erabiltzea sustatu behar genuke. Maiz informazio hobea du gainera.

5. «Hodei» seguruak

Google-k ikastetxeei produktu andana eskaintzen die (Drive, Docs, Sheets, Slides...), Microsoft-ek bezalatsu (Teams, Sharepoint, Office 365...). Heziketaren arduradunek tresna hauek merke lortzen dituzten bitartean, ikasleek pribatutasuna eta independentzia galduz ordaintzen dute. **Nextcloud** bezalako zerbitzu libreak ez dituzte Dropbox eta enparauek dituzten arriskuak. Horregatik, Nextcloud-i **Collabora Online** gehituz, era guztietako dokumentuak gorde eta online editatzen dira Europako gero eta leku gehiagotan. Gure datuak gure hodeietan gordetzen hasteko garaia da!

6. Ikaskuntza sistemak

Microsoft-ek eta Google-k, gorago aipatutako produktuekin eta Classroom bezalakoekin, heziketaren ziklo osoa beraien ostalarietan eta beraien produktuekin egin dezagun lortu nahi dute, kontrol osoa lortuz. Eusko Jaurlaritzak ordea, eskaintzen die **Moodle** sistema librea ikastetxeei, askorentzat **online ikaskuntza sistema onena** dena. Jarrai dezagun Moodle erabiltzen eta eman dezagun urrats bat gehiago, Moodle sistemari gorago aipatutako Nextcloud gehituz. Software libreak aukera bikainak eskaintzen ditu!

7. Eramangarri libreak

Windows-en, Apple-n eta Google-n sistema eragileak enpresa horien produktuen eta zerbitzuen dependentzia sortzeko diseinatuta daude eta gainera zaharkitzapen programatuaren arazoaren errudun nagusiak dira. **Luberri** sistema euskalduna, berriz, euskal hezkuntza komunitateak berak **euskal ikasleen beharrak asetzeko espresuki egina** da. Ordenagailu desberdinetan dabil (berriak, zaharrak, eramangarriak), software librez osatuta dago (GNU/Linux) eta klasean erabiltzeko hainbat aplikazio dakartza. Erabiltzen duten ikastetxeetako irakasleak jende berriari laguntzeko prest daude!